

ZABALTZEN-EN AURKAKO OPERAZIOA. Araketa «mediatikoki oihartzuna izateko asmoz» egin zela salatzen du agiriak

Euskarak azken aldian jasandako erasoak salatu ditu Kulturgintzak

Mila atxekimendutik gora izan ditu kaltetutako elkarteei elkartasuna adierazteko agiriak



EDURNE KOCH

Kultura munduko ordezkariak zabala bildu zen atzo Zabaltzenen egoitzan, banatzaileari elkartasuna adierazi eta erasoak salatzen.

Ekaitz Agirre | **DONOSTIA**

Baltasar Garzon epailearen aginduz iragan astean Zabaltzen banatzailearen bulegoetan egindako esku-hartze judiziala eta azkenaldian «Euskal Herria euskalduntzeko ahaleginen kontra» egindako erasoak salatu eta elkarte horiei elkartasuna adierazteko, Kulturgintzako eragileek kaleratu duten agiria aurkeztu zuten atzo Donostian. Guztira, kulturaren munduko

mila pertsona baino gehiagok egin dute bat agiriarekin, eta aurkezpenean horien ordezkariak zabala bildu zen. Guztien izenean, Benito Lertxundi kantariak, euskaraz, eta Juan Mari Irigoien idazleak, gaztelaniaz, irakurri zuten agiria.

Bertan, Garzonek agindutako Zabaltzenen aurkako operazioa «mediatikoki oihartzuna izateko asmoz» burutu zela salatzen da. Aspaldian euskararen aurkako eraso gehiago bu-

rutu direla ere azpimarratzen da agirian. Adibide gisa, D erduko irakaskuntza, ikas liburuak eta materialak eta AEKren aurkakoak nabarmentzen dira. Horiei guztiei elkartasuna adierazten diete sinatzaileek.

Benito Lertxundi eta Juan Mari Irigoien gain, kultura munduko pertsona ezagun ugarik egin dute bat agiriarekin. Mikel Laboa, Mikel Urdangarin, Fermin Muguruza edota Juan Carlos Perez kantariak,

Andoni Egaña, Sebastian Liza-so, Xabier Euskitze eta Iñaki Lazkano bertsolariek, Koldo Izagirre, Joxe Azurmendi, Aingeru Epaltza, Edorta Jimenez eta Joan Mari Torrealdai idazleak, Iñaki Mendiguren itzultzaileak, eta kazetaritza, informatika, irakaskuntza, marrazkilaritza eta beste hainbat alorretako pertsonak. Horieta-ko hainbat Zabaltzenen egoitzan izan ziren atzo agiriaren aurkezpenean.

ANDONI EGAÑA

Bertsolaria

«Erantzun bateratua emateko balio izan du»



«Zentzurik gabeko erasoak dira eta bada garaia kulturgintzan ari garenok bat egin eta erantzuteko. Nafarroan horrelako zerbait egitea komeniko litzateke, euskararen egoera okerragoa delako bertan. Gaurko ekitaldia eredugarria izan da, erantzun bateratua emateko balio izan baitu».

TXILLARDEGI

Idazlea

«Erasoen asmoa ardatzean jotzea izan da»



«Urtetan despistatuta egon gara, pentsatuz gauzak aldatu zirela. Azken erasoek gauzak beti egon diren puntuan jarri dituzte. Espainia beldurtzen duena Euskal Herriak herri gisa burua altxatzea da, batez ere bere hizkuntza ardatz hartuta. Eraso horiekin argi ikusi da euren asmoa ardatzean jotzea izan dela».

NIKO ETXART

Kantaria

«Euskararen etsaiak konplexurik gabe ari dira»



«Derrigorrez elkartasuna ekarri behar nuen, ikusiz Hegoaldean nolako kolpeak ematen ari diren euskararen aurka. Gai horrek zinez hunkitzen nau. Sumatzen dut euskararen etsaiak ausart direla gaur egun, eta konplexurik gabe ari direla gure aurka».

IDATZIA

Kulturgileon agiria

Hauxe da hitzez hitz kulturaren munduko mila eragile inguruk euskararen aurka azkenaldian egin dituzten erasoak salatzen adostu duten agiria.

Aurtengo urtarrilaren 23an Garzonaren aginduz interbentzio judizial bat egitera sartu dira Zabaltzeneko egoitzan. 19 faktura konprobatu behar omen zituzten eta 158 agiri eraman dituzte, enpresako informazioa, interbentzioarekin zerikusirik ez duena. Ohiko bide judizialetik egin behar zen dokumentu eskae-

ra, dozenatik gora funtzionario eta Poliziaren bidez egin zen, mediatikoki oihartzuna izateko asmoz inondik ere.

Garzonaren autoak berak noski, eta ondoren prentsan agertu den informazio-zaparradak euskalgintzan diharduen enpresa bat berriro ere ingurune eta tesuinguru desegokian kokatu dute.

Bestalde, orain Zabaltzen-ekin egin dutena lehenago AEKrekin eta beste zenbaitekin egin dute. Frogarik gabe salatu eta plaza publikoan kondenatu. Ez dira gertakari bakarrak, tamalez. Aspaldian honetan Euskal Herria euskaldun-

tzeko ahaleginen kontra modu desberdinetan ari dira jo eta jo, batez ere hizkuntza politika eta hezkuntza sistema propioa auzitan jarriz etengabe: D erduko irakaskuntza, ikas liburuak eta materialak, AEK, Zabaltzen. Gertakari larri hauen aurrean, euskal kultur egile eta eragile garen kantari, idazle, marrazkilaria, itzultzaile, bertsolariak... gure hitza eta ahotsa altxatu nahi dugu:

1. Gure solidaritate eta arnasa eskaintzen diegu oraingoz azken erasoak jasanduen Zabaltzen-i eta beste hainbeste aurreko guztiei. Ondoren etor daitezkeen erasotuek ere jakin bezate beren ondoan izango gaituztela.

2. Behin eta berriz euskalgintza susmoan jartzeko ahalegin jarraitua sa-

latzen dugu. Euskara eta euskararen mundua susmo txarrez kutsatuz, haren hazkundera oztopatzea bilatzen dute.

3. Euskalgintzan diharduten enpresa, erakunde, talde eta profesional guztientzat beren jardura garatzeko normaltasuna bermatzea eskatzen dugu.

4. Agintari, alderdi politiko eta gizarte eragileei, eta bereziki hizkuntza eta kultur politikaren arduradunei eskatzen diegu hizkuntzaren eta euskalgintzaren defentsa irmoa egin dezatela eta erakuts dezatela inplikazio publikoa.

5. Geure hitza ematen dugu azken hamarkadetan euskalgintzak egin duen aurrerakuntzak eskatzen dituen urrats berriak eginez joango garelako euskararen normalizazioaren bide luzean.